



ELKARRIZKETA: HARITZ AZKARRAGA

Arrasate

1998ko
Uztailak 3
414. zenb.

P R E S S

Zorionak Arrasate Musikal



IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • GURE ENPRESAK: ZENBAKI
EUREN IKUSPUNTUTIK: FERNANDO CRISTOBAL • KIROLAK: MAITE ALBES

275.000

pezeta urte 1erako

Segurtasun-sistema eta bizkarralde garai eta finkoa dituzten 4 aulki eta ohol lagazkaizuzko 80 x 60ko mahai bat.

98ko Uda

Aurrezkiaren

1.250.000

pezeta urte 1erako

Grundig 14"ko kolorezko telebista

Fruitu Berriak

Bizkarra indartuta eta helduleku anatomikoak dituen bizkarzorroa

98ko Frantziako Futbol Mundialeko baloia

125.000

pezeta urte 1erako

Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan, edo 901 - 333 444 telefono zenbakian, gaeko 22:00ak arte.

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena

Ulster

par Irlandako bake bidearen azken urratsa joan den asteko hauteskundeak izan dira. Eta emaitzek garbi asko erakutsi dute zenbateraino zen beharrezkoa bake bidea bera: Ulsterreko biztanleen erdia Irlandaren aldekoa da, eta beste erdia Britania Handiaren zalea. Nola konpondu arazoa?

Lehenik eta behin bi aukerak posible direla onartuz, Irlanda batuarena eta Ulster britaniarrarena. Biztanle gehienek aukeratu dute alde batera edo bestera egin nahi duten. Irlandarrek onartu egin behar izan dute Ulsterrek britaniar izaten jarraitzeko eskubidea duela. Eta britaniarrek, berriz, Ulsterri irlandar izateko aukera zabaldu behar zaiola.



Mikel Irizar

Kontua ez da, beraz, Londresek Belfasti zenbat eskumen onartzen dizkion, norainoko autonomia. Kontua da Belfasten azken helburuak —denak— posible direla legez.

Bigarrenik, bakea lortzeko asmoa benetakoa dela erakutsiz. Major eskuindarra —Blair geroago agertu zen— gai izan zen duela urte batzuk IRA eta Sinn Feinekin hitzegin eta haiengan itxaropena pizteko.

Armak isiltzen hasi ziren eta jendea mugitzen. Orditik hona atentauak, preso-en askatasuna eta armen utzi beharra ez dira traba izan, akuilu baizik. Eta britaniarrentzat gai hau “estatu kontua” izan da, alderdien arteko liskarren gainetik egon da. Major-ek hasi zuena Blair-ek boro-bildu du, naturaltasunez.

Euskal Herrian aukera bat —independentziarena— legez kanpo dago. Kaltegarria eta atzerakoa da, ez zaigu komeni, baina porsiakaso ez digute aukerarik ematen. Ulsterrek baino autonomia gehiago dugunez, ez dugu independentziarik behar, baina ate horren giltza kanpotik ixten dute, tentaldirik izan ez dezagun.

Eta Euskal Herrian bakea denen ahotan dabil, baina beti dago oztoporen bat mugitzen hasteko. Atentatuak ez dira aurrera egiteko akuilu izaten, traba baizik. Presoak truke txanpon dira. Agintzen dutenek —Jaime gurea buru— oraingoari eutsiz espero dute irabaztea. Eta gai honekin botoren bat irabazteko aukerak ere ez dira galtzen.

Euskal Herria ez da Ulster, seguru. Baina Euskal Herrian aukera politikoa guztiak legezkoa balira, eta bakearen nahia benetakoa, geu ere egon gintezke zorionaren atarian. Zergatik ez dugu aproba egiten? ■

“Hemen beti dago oztoporen bat mugitzen hasteko”

“Gorrotoa Lege da Jon Etxaidek Arrasateri egin zion ekarpenik handiena. Mondragoetar guztiok irakurri beharreko liburua da, besteak beste gauza asko desmitifikatzen dituelako Arrasateko erreketaren inguruan”

Jose Mari Velez de Mendizabal

20

doktore tesi egiten ari dira Mondragon Unibertsitatean

Urtebete baino ez darama lanean Mondragon Unibertsitatea eta dagoeneko hogeitau bat doktore tesi ari dira lantzen jakintza teknikoaren arlo desberdinetan. Lan hauek oso lotuta daude unibertsitate berriko Ikerkuntza eta Garapen (I+G) proiektuekin.

ITURRI ONETIK

Udal sistema informatikoa

Arrasateko Udalak 1983an jarri zituen ordenadoreak eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lotzen dituen sistema informatikoa. Zenbait programa, eroldarena esate baterako, oso eraginkorrak dira eta ondorio onak izan dituzte bezeroen artean. Lehen eroldaren ziurtagiri bat egiteko bi egun behar izaten ziren. Gaur egun bi minutu baino ez dira behar, eskuartean izateko. Edozer gauzari buruzko zerrendak eskatuz gero, berriz, Oñatira eskatu behar dira, bi bat egun behar izaten dira eskuratzeko eta bat ere tratatu barik jasotzen dira. Edozein datu basek bost minutu beharko lituzke informazio hori tratatzeko.



ARCO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcel, Naiara Goroño. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Galtzarain (Tel.: 79 02 26) **Disenua:** Txos Azurmendi. **Astoburuotako berriemaldea:** Liemi Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Ibauro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orcibengo, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Sali, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Salin, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontertatuta. **Inprimatokia:** Gertu Kooop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

 **ARRASATE PRESS** paper birzikilatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Laso.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sakeren laguntza

V. ALONSO ETA J.L.

AZKARATERI ERANTZUNEZ

Ekainaren 5eko *Arrasate Pressen*, berriz ere ikusi ahal izan genuen Elgeako zentral eolikoak oraindik ere zeresana ematen duela, eta horrek poz-tu egiten gaitu, gure helburuetako bat gaia kaleratzea baita. Badirudi guk emandako datu batek (zentral honek sortutako elektrairindarrak 8.500 pertsonaren kontsumoa besterik ez duela estaliko) eragiten zuela eztabaida argitaratutako artikulua eta gutunetan. Argi dago kopuru hori ez datorrela bat Eolicas de Euskadi S.A.k iragartzen duenarekin (100.000!). Horregatik, zenbaki hori nondik lortu dugun azaltzen saiatuko gara, ahal bada zenbakiekin inor zorabiatu gabe.

V. Alonsok dioenez, familia bakoitzak (lau pertsona) bi hilabetero 440kw/h behar ditu. Honen arabera, urte batean 440kw/h x 6 hilabeteko / 4 pertsona = 660kw/h/biztanle. Datu hau egia da, baina etxe-ko kontsumoari dagokionez bakarrik. Eta hor dago tranpa, jendeak ez baitu elektrizitatea etxean bakarrik kontsumitzen, baita lantegietan, kaleak argiztatzen... 1997an Hego Euskal Herrian guztira 15.790 Mkw kontsumitu ziren; zati 2,1 biztanle eginez gero, urtero 7.520 kwh/biztanleko daukagu. Beren datuekin lortutako 660 kw/h.etatik oso urruti. Eolicasek Elgearako agintzen duen urteroko produkzioarekin: 66Mkw/7.520kwh/biztanle = 8.776 biztanlerentzako argindarra sortuko duela dugu. Baina ez litzateke harritzekoa

kopuru horretara ere ez heltzea. Nafarroako Erreniegan (El Perdon) dagoen zentral eolikorako, 62-65 Mkw.ko produkzioa iragarri zuten, baina 1997an 54,4 Mkw besterik ez zituzten lortu.

Bestalde, V. Alonsok berak idatzitako artikuluan azaltzen diren hainbat ideia komentatu nahiko genituzke.

- Parke eolikoek paisajearen sortzen duten eragina subjektibo dela esaten du. Argi dago Eolicasentzako eragina jasangarria dela, baina gure ustez izugarria da, eta parke natural izan daitekeen lur eremu bateko mendi gailurretan kokatuko dela kontuan izanik, proiektuaren aurka azaltzeko arrazoia nagusienetarikoa.

- Egia da energia eolikoak garbia dela, baina ez hondakinik sortzen ez duela. Haize sorgailu bakoitzak dozenaka litro olio erabiltzen ditu bere mekanismoan, aldiro kamioiak erabiliz aldatu egin beharko direnak, eta prozesuan ezbeharren bat gertatuz gero, olio hori mendian isur liteke.

- Tokian tokiko hazientzatzat diru sarrerak sortzen ditu, baina orain arte kontu hauek ez dira garbi egin: Arabako Foru Aldundiak egindako txosten batean azaltzen denez, lurralde alokatzeko kontratuak enprekin sinatu dira zuzenean, legeak agintzen duen enkante publikorik egin gabe.

- Azkenik, sorgailu bakoitzetik urte batean lor daitekeen energiaren datua (2Mkw/h) "puztuta" dagoela uste dugu: Elgean 40 errotarekin 66 Mkw/h iragartzen dituzte.

Beraz, kasurik onenean, 1,65 Mkw/sorgailuko. Hala ere, ona litzateke energia eolikoak beste produkzio mota batzuk ordezkatzeko balitu, baina ez da horrela gertatuko, elektrizitate eskaeraren hazkundera asetzeko eraikiko baita. Gure elektrizitate beharren zati handi bat zentral eolikoekin bete nahi izatea, lapiko handi bat poxpoloekin berotzen saiatzea bezala da, eta txarrena da poxpolo horiek gure mendirik ederrak izango direla.

Deba Garaiko Mendi Taldeak, Gipuzkoako Mendizale Federakundeak, Eki, Eguzki, Arrasateko AHTren Aurkako Asanblada

ARRASATEKO HERRIARI, TXOSNEN INGURUAN

Idatzi honen bitartez, azpian sinatzen dugun taldeek txosnak ez jartzeko arrazoiak azalduko dizkizuegu, aurreko urteetan txosnek eta jai guneez izandako bilakaera aztertuz.

Orain bi urteko San Joanetan udaleko Kultura batzordeak, kuadrilekin batera jaiak indartu nahian, jaigune bat antolatzea pentsatu zuen. Horretarako beste talde batzuei deitu zitzaizkien proposamenaren berri eman eta parte hartzeri gonbidatzeko. Batzordeak txosnak jartzea proposatu eta baliabideak eskaini zituen. Esperientzia aberasgarria izan zen eta hurrengo urtean ere parte hartzea areagotu egin zen. Nabaria zen San Joan jaiak indartzen ari zirela.

Gaur egun, San Joanetako

egitaraua esku artean dugula, ikusi dugu azken bi urteetako jaigunerik ez dela egongo, ekin-tzarik ere ez dela han izango. Beraz, txosnak jartzen ditugun taldeok hauek ez jartzea erabaki dugu, honako arrazoia hauek tarteko: jaigunearekin batera jaio zen txosnagunea banaezinak direlako; bestetik, kontuan hartu behar da San Joanek oraindik gure herrian duten oihartzun eta indar eskasa eta txosnak duen lan handia. Beste jai batzuetan gertatzen ez den bezala, San Joanetan ez da jende gehiegirik ibiltzen. Horregatik, ez diogu zentzu handirik ikusten ekintza bereriko jaigunea izan gabe txosnak egoteari.

Nahiz eta aurreko urteetan gaur bezalako txosnak jartzen ditugunon asmoa da hurrengo urteetan egoera aldatu eta jaigunea San Joan jaiak girotzen jartzea.

Arrasateko Errugbi Taldea, Erdu-AEK, Irrintzi Taldea, Jarrai eta Amnistiaren Aldeko Batzordea

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 3
 - Egunez: Español, Iturriotz
 - Gauez: Estella, Bergara
- Larunbata, 4
 - Egunez: Korkuera, Musakola
 - Gauez: Mozos, Bergara
- Igandea, 5
 - Egunez: Irizar, Erguin
 - Gauez: Mozas, Bergara
- Astelehena, 6
 - Egunez: Amezuza, Santa Marina
 - Gauez: Guallar, Bergara
- Asteartea, 7
 - Egunez: Zarugalde, Zabala
 - Gauez: Barrenkale, Bergara
- Osteguna, 8
 - Egunez: Ruiz, Maala
 - Gauez: Guallar, Bergara

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Sipi Sipi

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

LAKET

Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiralean
Setatik Setara.

Tel.: 943 79 26 99

Bereizten dituzu etxeko zaborrak bota aurretik?

Oraingo sistemak zabor organikoak, kristalak eta paperak bereizteko aukera ematen du



Angel Garcimartin
(68 urte)
erretiratua

Beti. Hiru poltsa ditugu. Metalak eta plastikoak ere bereizteko aukera izango bage-nu, hobeto.



Edurne Zabaleta
(83 urte)
etxekoandrea

Bai. Etxe ondoan ditugu edukiontziak. Plastikoa ere aparte jaso beharko litzateke, izurrite bat da eta.



Rafael Garcia
(60 urte)
erretiratua

Paperak eta kristalak bereiztu egiten ditugu. Plasti-koak eta, berriz, ez, ez dago-elako nora bota.



Nekane Gardoki
(10 urte)
ikaslea

Bai. Hiru multzo egiten ditugu. Metala eta plastikoak ere jaso beharko lirateke, ez badu-gu herria kutsatu nahi.



Felisa Suarez
(54 urte)
etxekoandrea

Bai. Oraingo paperak eta kristalak bereizten ditugu. Bai-na uste dut plastikoak ere jaso egin beharko liratekeela apar-te.



Arantxa Tena
(44 urte)
etxekoandrea

Bai. Plastikoa batez ere aparte jaso beharko litzateke, ze leku handia hartzen du eta ez da hain erraz desegiten.



Josune Abarisketa
(32 urte)
etxez etxeko laguntzailea

Bai. Justu etxepan dauzkat edukiontziak. Nik uste dut plastikoak eta metalak ere jaso beharko liratekeela aparte.



Juan Murillo
(31 urte)
langilea

Bai. Plastikoa biltzea sentitzen dut faltan, asko egi-ten da eta. Etxean poltsa asko beharko dira denak bereizte-ko, baina merezi du.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Osasuna oinetatik bururaino doa txikitatik zaindu zapaltzeko modua Etorri guregana!

Guk dauzkagu umeentzako zapata erosoak!

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel.: 943 79 51 25

Arrasate

LANAK

OBENERREKAN


Jolastokia berrizteko lanak.

TAKOLON

Biribil berria egiten ari dira.

AZATZA ETXEETAN

Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua egiteko lanak.




Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 3



LARUNBATA 4



IGANDEA 5

Zeru oso lainotuak. Zaparradaren bat edo beste egin dezake, baina arratsalde parterako gutxitzen joango dira.

Laino ugari. Euria egingo du eta tar-teka zaparradaren bat. Temperatura ez da aldatuko.

Lainoak gutxira egingo du eta goizaldean behelainoa izango dugu. Temperaturak gora egingo du.

Ilargia



ilbetea

Uztailaren 9an, osteguna, ilbetea izango da.

Mezak

Parrokia

Larunbatean 19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean 19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean 19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean 19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:00 (erdaraz)
13:00 (erdaraz)


Santa Teresa

Larunbatean 19:00 (elebiduna)

Igandean

10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila
%91,8



Distantziak

Arrasate

121	Baiona											
690	579	Bartzelona										
57	170	620	Bilbo									
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela								
72	50	529	119	1.088	Donostia							
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz						
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea					
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril				
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris			

Ipek *Denda* *G*

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

**Beherapenik onenak IPEKen
%50era artekoak**

3

ostirala

■ ZINEA

A la luz del fuego, Alai zineman, 19:30etan eta 22:00etan.

■ ARAMAIOKO JAIK

Txupinazoak, txistulariek eta *Zadorra Zango* taldeek emango diote hasiera Martin Deunaren jaiei. 23:00etatik aurrera *Basakabi* taldea arituko da Goikoetxea plazan. 01:00etatik aurrera, rock jaialdia Bizente Goikoetxea enparantzan, π LT eta Belagarrri taldeekin.

4

larunbata

■ ZINEA

Kundum, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ AL ANDALUS

Al Andalus kultura elkar-teak emanaldia eskaniko du Iturbide egoitzan. Dantza eta kantuen saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da.

■ LAIXAN EUSKARA EGUNA

Oñatiko institutu aurrealdean izango da Laixan Euskara elkarteak antolatutako euskararen jaia. 11:00etatik aurrera haur jolasak; 12:00etan txupinazoa eta herri txikiteoa; 14:30etan herri bazkaria eta ondoren kanta zahar eta berriak, txisteak eta mus, toka eta txantxiku txapelketa. 18:00etan Oñatz dantza taldea, gaiteroak, txalapartariak, txistulariak eta larrain dantza. 19:30etan Ander, Arantxa eta Pantxoren euskal kantak. Gaezan erromeria, Almenaldearekin.

■ MOZORRO EGUNA

Zubillaga auzoan Mozorro eguna ospatuko dute. 09:00etan gaiteroen diana, 10:30etan mendiko bizikletekin zeharkaldia, 17:00etan umeentzako jolasak, 18:00etan *Mus relanpago*, 22:30etan etxafleroak eta mozorro dantza eta lehiaketa; 23:00etatik 01:00era *Eztanda* taldearen jaialdia. Goizaldean, txokolatada.

■ ARAMAIOKO JAIK

Artzain txakurren erakustaldia 18:30etan hasiko da eta, bide batez, omenaldia egingo zaio Pedro Zubizarretari. Salazango zelaian. 22:30etan, San Martin pilota txapelketako finalak eta 00:00etan *Egan* taldearen dantzaldia.

5

igandea

■ ZINEA

Kundum, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ ROZIO EGUNA

Al Andalus elkarteak VIII. Rozio eguna egingo du. 10:30etatik 11:15etara Zigorrolako San Isidro elizan Rozioko Ama Birjinaren aurrean komunitate desberdinetako elkarten aurkezpena. 11:30etan Meza errozierara esango du Pablo Barrenak eta hantxe arituko da Al Andalus erroziero abesbatza. 12:30etan erromeruen eta zaldien irteera Zigorrolako parkeerantz, *Blanca Palomari* laguntzen. 19:00etan Al Andalusen etxera itzuliko dira erremeroak. Honez gain, eta egun osoan zehar, Zigorrolako parkean Andaluziako produktuen dastapena eta dantzak izango dira. Parte hartzaileei erroziero jantzita joatea eskatzen zaie.

■ ZUBILLAGAKO JAIK

10:00etan etxafleroak jaurti ondoren, meza esango da eta 12:00etatik 14:00etara erretiratuei ongietorria eta hamaiketako. Ondoren *Oranda*, Irazu, Iturriaga eta Sebastian bertsolarien saioa, 17:00etan zinta lasterketa auzokide guztientzat eta 22:00etan erromeria, *Hator* taldearekin.

■ ZERRAJERIA IKUSGAI

Jon Ruiz de Zarate argazkilariak Zerrajeriaren argazki bilduma jarri du ikusgai Mondragon Hotelean. Argazkiok uztailaren 19ra arte izango dira ikusgai.



■ **GUDARIEI OMENALDIA**

Albertia 98 egingo da Legutianon. Landako zelaian omenaldia eskainiko zaie gudariei goiz partean. Arratsaldeko 13:00ean, berriz, ekitaldi politikoa izango da behe aldeko basoan.

■ **ARAMAIOKO JAIK**

Haur jolasak 16:30etatik aurrera eta 17:00etatik aurrera *Kirkil* fanfarrearekin kalejira. 23:00etan, *Irailerako 6 taldea* kontzertuan.

6

astelehena

■ **ZINEA**

Kundum, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ **SEXUALITATE ASTEA**

Ostegunean sexualitatea-ri buruzko zinea eta tertulia eskainiko dira 22:00etan gaztetxean. Astelehenean 18:00etan luntxa eta 19:00etan Sagra Lopezek hitzaldia eskainiko du.

■ **HITZALDIA**

San Clemente proiektuaren inguruko hitzaldia antolatuko dute, Aretxabaletako udaltxeko ganbaran. Hitzaldia arratsaldeko 19:30etan izango da, Sebastian Uribetxebarriak eskainia.

■ **ARRASATE MUSIKAL**

Aramaioko jaietan Arrasate Musikalen emanaldia izango da, San Martin elizan 20:00etan. 22:30etan, berriz, erromeria *Arkaitz* taldearekin.

7

asteartea

■ **ZINEA**

Kundum, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ **SAN FERMINAK ITURBIDEN**

Iturbide egoitzan, San Fermin eguna ospatuko dute. Goizean goiz entzierroa ikusiko dute eta ondoren San Fermin giroa biziko dute zapi gorri eta guzti.

■ **SEXUALITATE ASTEA**

Antisorgailuei buruzko hitzaldia eskainiko da gaztetxean, 19:00etan.

9

osteguna

■ **ZINEA**

Bernie, Monterron parkean, 22:30etan. Sarrera, 400 pta.

■ **SEXUALITATE ASTEA**

Harremani buruzko mahai ingurua antolatu da gaztetxean, 19:00etatik aurrera.

■ **GIDOI IKASTAROA**

Bergarako Islada bideo lantegiak gidoi ikastaroa antolatu du uztailaren 8tik 20ra bitartean. Gidoiaren hizkuntza, zinerako idazkeraren xehetasunak eta narrazioa izango dira besteak beste, Mitxel Gaztanbide eskainiko duen ikastaroaren gaietako batzuk. Matrikula 15.000 pta. kostako da. Eskolak egunero 09:30etatik 13:30etara.

■ **LANBIDE HASTAPENA**

Arrasateko Lanbide Hastapeneko matrikulazio epea uztailaren 8ra arte izango da zabalik. Interesatuak eskolako bulegotik pasa daitezke 10:00etatik 12:00etara.

8

asteazkena

■ **SEXUALITATE ASTEA**

HIESa eta sexuari buruzko hitzaldia, gaztetxean, 19:00etatik aurrera.

EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK

Hau bezalako preziorik ez duzu ikusiko beste inon

MALLORCA

Uztailean. 8 egun. Hotel ***
Pentsio Osoa.
Hegazkina Bilbotik.
Prezioa pertsona bakoitzeko

59.900 PTA. tik HASITA



1^a

VIJES EROSKI BIDAIAK

Prezio Onak baino gehiago

ZURE ERRESERBA EKINAREN 30g BAINO LEHEN ECITECATIK Travel Clubeko 500 puntu "estra"

LARUNBATETAN arratsaldetik ere ireki egiten dugu EROSKI HIPERMERKATUETAKO bulegoetan

USTEAK USTE

Arrasateko sozialistak

Mondragoeko sozialistak ez datoz bat beren idazkari nagusiak eta partiduaren batzorde eragileak Eusko Jaurilaritza uzteko hartu berri duten erabakiarekin.

Bat egiten dute Donostiako alkatearekin, esaten duenean herri honek nahiko arazo badituela eta ez dagoela zertan sortu arazo gehiago, hain modu artifizialean. Zentzu handiagoa erakutsi dute beren idazkari nagusiak baino, alajaina!

Markos Vitoria sozialista mondragoe-tarrari udaletxean egindako omenaldian bota zituen Nicolas Redondok abisu batzuk, esanez kokoteraino zegoela jeltza-leen jarrerarekin eta prest zegoela gobernu-a uzteko. Abertzaleen boto bateratuak eman bide dio aitzakia.

Urtebete igaro da Ortega Lara gorphubizi atera zutela gure artetik eta oraindik ere asko dira aspaldiko dinamika antzuan segitzen dutenak: jendea hiltzen batzuk eta betiko jarrera numantinoetan besteak. Ikusten denez, Euskal Herriko arazoak errentagarriak dira.

Joxe Aranzabal



Txizari ezin eustea eta emakumeak

Fernando Cristobal*

Txizari ezin eustea da emakumeen arteko gaixotasunik ohikoena eta emakumeak berak hobeto jasanen duena. Lehen, hilekoak eta erditzeak eragindako minak edo menopausiak sortutako arazoak emakumezkoen atxikitakotzat jotzen ziren eta, beraz, derrigorrez jasan beharrekotzat. Denborak aurrera egin ahala, emakumeak ikusi du nola desagertu diren bere sexu alderdiak eragindako nahasmendu asko.

Orain urte batzuk erabaki genuen modu eraginkorrean aztertzea txizaren patologia emakumearengan. Emakumeak berak eta osasun profesional askok ere, ama eta emakume izateari egotzen dizkiote nahi gabeko txiza isuriak. Egia besterik da, ordea: txizari ezin eustea aurrea har dakioken eta sendabidea duen gizarte gaixotasuna da.

358 emakumeri egin diegu galde, ea nahi gabeko txiza isuriak dituzten, bizi-

tza baldintzatzen ote dien, etengabe zapi higienikoak eramatera behartzen ote dituen...

Erantzuna erabatekoa izan da. 40 eta 50 urte arteko sei emakumetatik batek aitortzen du nahi gabeko txiza isuri handi samarrak dituela. Beste batzuek isuri txikiagoak dituzte. Hori dela eta, adin horretan dauden emakumeen erdiak zapi higienikoak eramaten dituzte etengabe babes gisa.

Erantzun duten hamar emakumetatik zortzik aitortzen dute ez dutela informazio nahikoa jaso.

Txizari ezin eustea lehen erditzearen ondoren agertzen

“Gure helburua da zapi higienikoa desagertaraztea emakume askoren barruko arroparen artetik”

da. Pelbisaren oinarria hautsi egiten da eta galdu egiten du puxikari bere lekuan eusteko ahalmena.

Honek guztiak badu konponbiderik. Gaur egun lan egiten dugu emakumeekin umea izan eta gero, hautsi dena konponduz eta eragotziz urte batzuk beranduago prozesu guztia has dadin. Badaezpazako neurriak dira hauek.

Urteak igaro direnean emakumea ama egin zenetik eta txizari ezin eustea hor dagoenean, konpondu egin dezakegu arazoa, ebakuntzarik egin barik.

Biofeedback-eko teknika berriei esker lor dezakegu saio gutxi batzuen ondoren emakumea ez bustitzea eta zapi higienikoak alde batera uztea behin betiko.

Urtebete baino gutxiago falta da 2000. urterako. Gaur egungo emakumea etxeko-andrea da, erizaina edo katedraduna. Langune garrantzitsuak ditu enpresan edo bankuan. Dexente dakigu giza genomari buruz, aspaldi iritsi ginen ilargira..., baina oraindik ere zapi higienikoa da txizari ezin eustea konpontzeko erremediorik zabalduena. Ginekologia Bulegoaren helburua hauxe da gaur egun: zapi higienikoa desagertaraztea emakume askoren barruko arroparen artetik.

* Ginekologoa

TOKION
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETAKA

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

Bergara

① Orfeoiak
75 urte

Bergarako Orfeoiak programa berezi bati eman zion hasiera joan den larunbatean, bere 75. urteurrena dela eta. Musika emanaldia eskaini zuen Aita Donostia Ganbera Orkestrarekin, Gerardo Grifon organujole eta M^a Jesus Ugalde, Yolanda Sagarzazu, David Azurza, Pedro Ormazabal eta Jagoba Fadrike abeslariarekin batera. Ekitaldiaren zuzendaria Juan Jose Mena izan zen. Larunbatekoa, irailetik aurrera emango dituen ekitaldi ugariaren lehenengoa izan zen. Horrez gain, orfeoiari buruzko erakusketa egingo da. Liburu eta CD bat ere kaleratuko dira.

Oñati

② Sarbidea
saihesbidera

Oñatiko Udalak sarbide berria egingo du saihesbidera, azken udalbatzan onartu zen legez. Udalaren esanetan, sarbide berriak Ibarakoak sortzen dituen trafiko arazoak saihestuko ditu. Sarbideak errepidea eta Unibertsitateko etorbidea batuko ditu. Lanak urtebete


inguru iraungo du eta 41 milioi pta inguru kostatuko da.

Aretxabaleta

③ Akordeoilariak
Finlandian

Aretxabaletako Akordeoi

Orkestra Finlandiako Ikaalinen herrian dago, hango akordeoi jaialdian. Aretxabaletarrak zazpi kontzertu eskainiko dituzte, 45.000 lagun inguru biltzen dituen jaialdi horretan. Orkestra duela bost urte eratu zen. Gaur egun hogeita



hiru gazte dabilta Juanjo Orobengoaren zuzendaritzapean. Saririk ere jaso izan du, Italiako jaialdi batetik eka-rritako lehen saria esate baterako.

Elgeta

④ Organo
berriztua

Elgetako parrokiako organo berriztuaren soinua entzun ahal izan zuten herritarrek joan den larunbatean. Jose Hermenegildo Amezua azpeitiarrak 1895ean egindako organoa, Azpiazu aita-seme azpeitiarrek zaharberritu dute. Koro Saenz organojole famatuak kontzertua eskaini zuen.

Eskoriatza

⑤ Geriatrikoa
handiagotu

Geriatrikoaren egoera aztertzea onartu zuen Eskoriatzako Udalak egin zuen azken osoko bilkuran. Asmoa da geriatrikoa handiagotzea. Beraz, zer nolako lanak egin beharko diren aztertuko da. Oraingoan, sei gela gehiago eta bainugela berriak egin nahi dira. Handiagotze lanak 75 milioiko aurrekontua izango du.



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 - 79 78 15 / 943 - 77 10 42 Faxe: 943 - 77 14 76

astea bi hitzetan

■ Goikobalu Argentinara

Goikobalu abesbatza Argentinara joango da uda honean hainbat emanaldi eskaintzera, hango euskal etxeetan batez ere. Bidaiarako dirua ateratzeko asmoz, kontzertua eskaini zuten joan den larunbatean Goikobalu Txiki eta Arrasate Musikaleko hainbat talderekin batera. Jende dextente gerturatu zen ekitaldira.

■ Udako kirol eskola

Oñatiko Unibertsitatean Uda-ko II. Kirol Eskola aurkeztu zuten astelehenean Deba Baidarako udaletako kirol zerbitzuek. Jardunaldi hauen bidez

kirola eta euskara uztartu nahi dira. Aurkezpen ekitaldian, Jose Mari Agirre kultura eta kirol sailburuordea, Xabier Huizi foru aldundiko Euskara zuzendaria eta Felix Iñurrategi izan ziren, besteak beste.

■ Truke programa

Extremadurako Valverde herritik etorritako gazteak bueltatu ziren euren lurraldera. Corazón de Encina elkarte arrasatearrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan du elkar truke programa aurrera ateratzeko. Extremaduratik etorritako 27 gazte eta lau begi-

rak Arritxu Maraño aldundiko Gazte eta Kirol diputatuaren ongietorria jaso zuten. Datorren urtean, arrasatearrak joango dira hara.

■ LABen salaketa

Mankomunitateko LAB sindikatuaren sailak bi langile-
ren lan egoera salatu du. Bi langile hauek 12 eta 13 urte daramatzate lanean mankomunitatean. Finkoak dira, baina denbora mugatuko kontratuak dituzte. Beraz, lanaldiaren %42 inguru baka-
rrik lan egiten dute. Egoera behin behinekoa dela salatu du LABek eta euren egoera araupetzea eskatu du.



PRESOEN EGUNA

Joan den ostiralean kale agerraldi isila egin zuten presoek, euskal preso guztien argazkiak zeramatzatela. Gauean herri afaria, bertsolariak eta Ines eta Naiararen musika emanaldia izan ziren.



“Ondo

egokitu naiz (Marokoko gizartera), baina egokitzea zailagoa izan da lan kontuetan. Kulturei degokienez, izugarrizko aldea dago, eta lan harremanak erabat desberdinak dira han. Hala ere, uste dut aukera handiak eskaintzen dituen herria dela eta Fagorrek lan garrantzitsua egin dezakeela hemen. (...) Ondo ibili ahal izateko, ondo ezagutu behar da Marokoko gizartea. Lanean ere, operazio bakoitza azokan bezala negoziatzen da”.

JOSU UGARTE

TU-Lankide

1998ko maiatza



MIKEL ERASO BERGARA

“Txato”

*Erdu hintzen
tril egin genian
eta barrezkero*

beti izango haiz gurian

Erdu Trileko lagunak



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**


MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**TXOKO
TABERNA**

*Eure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak*

Zatoz gurekin, zatoz Institutura!



BATXILERGO GUZTIAK

- Izadi eta Osasun-Zientzien Batxilergoa.
- Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa.
- Teknologia Batxilergoa.

BIDE IREKIAK

Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak ditugu.

HIZKUNTZAK

Hizkuntzetan eskaintzarik zabalena:

- Ingelesa.
- Alemaniera.
- Frantsesa.
- Italiara.

MODALITATEAK ETA AUKERAKO JAKINTZAGAIAK

Modalitate eta Aukerako jakintzagaiak, besteak beste:

- Errepresentazio-sistemak
- Elektroteknia.
- Jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna.
- Mekanika.
- Psikologia.
- Antropologia.
- Laborategi teknikak.
- Ekonomia eta Enpresa antolaketa.
- ...

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ibilgailuen elektromekanika.
- Erizaintzako zaintza osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

III. MAILAKO MODULUA

- Sistema automatiko eta Programagarriak.

AURRERANTZEAN EZARRIKO DIREN HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK


- Ingurugiro-kimika.
- Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produkzioa.
- Automozioa.

MATRIKULA

Uztailaren 1etik 10era


 **arrasate
aretxabaleta**
I N S T I T U T U A

ARRASATE: Sta. Teresa, 25 • 20500 ARRASATE • Tel.: 79 83 00 / 79 44 47 • Faxa: 79 44 37 • E-mail: iarrasate@edunet.ibernet.es.
ARETXABALETA: Etxebarri auzoa, z/g • 20550 ARETXABALETA • Tel.: 79 79 00 / 79 79 43 • Faxa: 77 09 55 • E-mail: aretxainsti@jet.es.




MEXIKO LINDO

Bazirudien *Mexikomania* zabaldu zela herrian *Los Perez de Notchistlan* mariatxi taldearekin. Kalejira jendez inguratuta egin zuten, fanfarre koitadua bakarrik zihoan bitartean. Gauean ere, milatik gora lagun elkartu ziren Monterronen, *Sigo siendo el rey* eta horrelako *mexikanadak* eurekin batera abesteko.



BAKAILAOAREN BERPIZKUNDEA

Iazko etenaren ondoren, berriro ere egin zen joan den ostiralean XVI. Bakailao Lehiaketa. Aurtengoak, goi mailako epaimahaia izan zuten: Koldo Lasa, Lasa jatetxeko nagusia, Valentin Moreno, Euskadiko txapeldun izandakoa, eta Begoña Aldabe sukaldari arrasatearra. Udalaren ordezkaria Andoni de Bedialauneta izan zen. Txapeldunak Amaika Gazte elkarteko Sanchez eta Beitia izan ziren, 81 punturekin. Bigarren saria Karkabaleko Josu Aranegik eskuratu zuen, 53 punturekin. Hirugarrena, 47 punturekin, Irantsubeko Santos Hernandez izan zen eta laugarrena, 46kin, Santamainako Felix Agirre.



beatriz

*oinetakoak
eta poltsak*

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

JUBAR
ATEAK. S.L.®



- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



HORI ZORTEA, ARRATE!

Izarren zaparrada ATBko programan, Eroski Bidaiak ekarritutako bidaia bat zozkatu zen. Nora eta, Por Aventurara. Irabazlea Arrate Izquierdo izan zen. Jon Isazelaiak hiru laguntzako oparia eman zien: autobuserako txartelak, Saluoko hotel batean erreserba eta Port Aventurarako sarrerak. Ondo pasa!



REGGAE MONTERRONEN

Ke Rule taldeak reggae soinua ekarri zituen Arrasatera ostiralean. Monterronen eskaini zuten emanaldia, Dantzut eta Bad-

f-line talde arrasatearrarekin batera. Ez zuten mariatxiak besteko arrakasta izan, baina herriko gazteek gozatu egin zuten.



NON DAGO SUA?

Joan den ostiralean, suhiltzaile bereziak etorri ziren Arrasatera. Euren helburua sua aurkitzea zen, asper-asper eginda baitzeuden, lanik gabe. Arrasateko haurren poltsikoak arakatu, baina ezer ez. Azkenean, liburu batean piztu zen sua, eta begira zer nolako festa antolatu zuten!

FUTBITO TXAPELDUNAK

Irakolako iratxoek ez zuten Arkupe Joma taldearen argakia bere lekuan jarri. Beraz, pixka bat beranduago kaleratu behar izan dugu. Dena den, hementxe dituzue

aurrebenjamin mailako San Andres eta Santamainako I. Futbito txapelketako irabazleak. Indo Takolo taldearen aurka jokatu zuten finala, 3 eta 1eko garaipena lortuz.



HIES

EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralean
5etatik 8etara.

Tel.: 943 - 79 26 99

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

TABIRA

Dietista • masajista
psikologoa

Munar, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 73 54

Ortega Lara kasuaren epaia irten da

Fiskalak eskatu bezala, 32 urteko espetxe zigorra ezarri dio Auzitegi Nazionalak, Ortega Lararen bahiketan parte hartu zuen ETAkide bakoitzari. Legez kanpoko atxilotzatik 20 urte eta hilketa konspirazio graduan delitua-rengatik, beste 12 urte.

Epaiketa joandako ekainaren 10ean hasi zen Madrilko Auzitegi Nazionalan Ortega Lara bera barik, bere osasunerako kaltegarria izan zitekeelakoan. Lau auziperatuek, -Josu Uribebarria, Xabier Ugarte, Jose Luis Prostegi eta Jose Migel Gaztelu-onartu egin zuten bahiketan parte hartu zutela. Euren arrazoirik nagusia zera zela esan zuten: gobernuak ez zuela ezer egiten presoen egoerari buelta emateko.

Berdintasunerako teknikari finkoa

Ekin Emakume taldeak, Gizarte eta Heziketarako zentruak, Egizanak eta Emakumeen Asanbladak Emakume saileko teknikari lanpostuaren egonkortasuna eskatu diote udalari. Lanpostu hori ez da finkoa eta epea bukatutakoan lehiaketa publikora ateratzen du udalak. Emakume taldeek teknikariaz aldatu beharrak orain arte egindako lana oztopa edo geldo dezakeela uste dute. Gobernu Batzordeak ordea, lehiaketara aterako du lanpostua laster.

Emakume taldeek udalbatzak onartutako ekintza positiborako planaren garrantzia gogoratu dute, eta gutxienez, plana hasi zuen teknikari berak eraman dezala aurrera eskatu dute.



Inork ez du interesik udala gobernatzen duen koalizioa apurtzeko.

Hirutarikoa ez bide da apurtuko Arrasaten

Sozialistek Eusko Jaurlaritza gobernatzen duen hirutariko gobernu uztea erabaki zuten asteartean. Une batez pentsa zitekeen foru aldundietako eta udaletako koalizioak ere apur zitezkeela, baina ez dirudi hori gertatuko denik.

Arrasaten behintzat, sozialistek garbi adierazi dute ez daudela ados beren partidua-ren batzorde eragileak hartutako erabakiarekin eta prest

daudela Arrasateko Udala gobernatzen duen hirutarikoa-ri eusteko.

Gainerako alderdiak ere bat etorri dira hemen ez dela ezer gertatuko. Gehienek hauteskundeei begira hartutako erabakitzat jo dute sozialistek Eusko Jaurlaritza utzi izana.

Dena den, zer gertatuko litzateke sozialistak Arrasateko gobernu koalizioa apurtuko balute? EAJ eta EA zor-

tzi botorekin geratuko liratekeela. Horrekin minorian goberna lezakete, aurretik HBk eta EBk egin zuten bezala, baina desegonkortasun handiarekin. Dena den, urtebetez eusteko moduan izango lirateke. Zer egingo luke te orduan sozialistek oposizioan? Lan txarra izango luke te, zalantza barik. Ez dirudi, beraz, udal koalizioa uztea komeni zaienik.

- **Jose Mari Loiti (EAJ)** "Ez dut uste sozialistak Arrasateko Udala gobernatzen duen taldetik irtengo direnik. Horren aurretik diputazioetatik irten edo bota beharko litzateke eta ez dut uste hori gertatuko denik. Ni trankil nago".
- **Paco Garcia (PSE-EE)** "Orain urtebete udala gestionatzearen aldeko apustua egin genuen, legegintzaldia bukatu arte. Hori da dugun konpromisoa eta bete egingo dugu".
- **Isabel Gallastegi (EA)** "Erabakiak goitik etorriko dira. Egibarrek dagoeneko esan du ezin dela desegonkortasuna udal guztietara eraman. Aldaketak Jaurlaritzan bakarrik emango direla uste dut".
- **Xabier Zubizarreta (HB)** "Uste dut Arrasateko Udalak bere horretan segituko duela. Hau operazio elektoralak izan da eta aulki beroak gordetzeko".
- **Joseba Ugalde (EB)** "Ez dut uste ezer aldatuko denik. EAJk eta PSOEek ez dute koalizioa hausteko asmorik. Dena hauteskundeei eragindako antzeppen hutsa izan da".
- **Antonio Palacios (PP)** "Sozialistek ergelkeriak egin ditzakete, baina ez dira ergelak. Ez dira diputazioetatik eta udaletatik irtengo. Loiti oso eroso dabil sozialistekin eta ez zaio komeni oraingo egoera apurtzea. Beraz, ez dut uste aldaketarik izango denik".


Kabía

ALTZARIAK

Irailera arte zapatu
arratsaldeetan itxita

%50

Prezioak
oporretara bidali
ditugu



%30

Eskaintza
bereziak


Zenbaki: aholkularitza zerbitzuak Deba Bailararako

Zenbaki Aholkularitza lau Zarrasatearrek sortu zuten 1985ean. Laurek enpresa eta zuzenbide arloetako ikasketak zituzten. Arrastan bulegoak oso garestiak zirela eta, Aretxabaletara joan ziren. 30m²ko bulego batean hasi ziren. Laurak hantxe egiten zuten lan. Bisitaren bat zetorrenean, hiru kanpora atera behar izaten ziren, tokia egiteko. Gauregun, berriz, 176 m² dituzte Aretxabaletako Basabe industrialdean. Lan-eremua jende gehiago ari da: hamar lagun.

Zerbitzu asko eskaintzen ditu Zenbaki: aholkularitza kontularitza, lan arazoetan, zerga kontuetan, zuzenbidean eta aseguruetan. Baita finantza produktuak ere, hau Renta 4 etxearekin batera.

Bezero gehienak enpresa txikiak eta jende arrunta dira, batez ere Arrasate eta Aretxabaletakoak.

Zenbakik bi enpresa ditu:



Hamar lagun ari dira gaur egun lanean Zenbakiren bulegoetan.

Zenbaki koop. elkarte eta Ger-tu Aseguru Artekartitza, azken hau elkarte mugatua. Bietatik aholkularitzak ematen du diru gehien. Sasoi batean bulego bat erosi zuten Arrasateko Biteri kalean, baina gaur egun alokairuan dute. Behin baino gehiagotan pentsatu dute Arrasatera joatea, baina bulegoak oso garestiak bide dira.

Lana erabat informatizatuta dute: bakoitzak ordenadore batekin egiten du lan. MS-DOS eta Windows sistema eragileak erabiltzen dituzte eta Novell sarean egiten dute lan. Arlo bakoitzerako programa bereziki egiten dute lan.

Hamahiru urtean zehar bailarako aholkularitza handiena bihurtu dira. Laster Interneten sartuko dira. Lehen aldi batean ikusi nahi dute sarean arteko sarea nola dabilen eta zer informazio mota atera daitekeen. Ondoren, zerbitzuak eskaintzen hasiko lirarteke.

Zenbaki



Kudeatzailea	Rosario Beitia
Pertsonal zuzendaria	Gema Jauregi
Merkataria	Jose Migel Salaberri
Bezeroarekiko atentzioa	Jone Ugarte
Kontularitza saila	Marixabel Isasmendi



AMI OINETAKOAK

oinetako autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 943 - 77 14 65



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

BiRiBiL

Edari eta tabakotan
espezialistak

Zarugalde, 35 • Tel.: 943 - 79 09 53 • ARRASATE



MULTIOPTICAS



**EGUZKITARAKO
betaurrekoak
3.500 pta-tik**



**EGUZKITARAKO
betaurreko graduatuak
8.500 pta-tik**



**KILLER
LOOP**



Ray-Ban

adette

RÉVO



Etia ordaintzeko ordutan, abantaila upari :
• MULTIOPTICASen kreditu-tzartela. Diru barik erosteko modurik errazena.
• Ordaintzera 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batiere erretzeari barik.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
"TRAVEL CLUB" -
PROGRAMAKO
PUNTUAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 943 76 15 75
20570 BERGARA

Juan Carlos Guerra, 1
Tel. 943 79 29 95
20500 ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 943 20 05 22
20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmalteria, 7
Tel. 943 51 78 11
20100 ERRETERIA

TELEBISTAKO AURKEZLE IZAN NAHI DUZU?

ARRASATEN DUZU AUKERA!

UZTAILAREN 9A BAINO LEHENAGO EMAN IZENA ATBn
EDO TELEFONO HAUTARA DEITU: 943 79 02 66 / 943 77 06 90

AUKERAKETA UZTAILAREN 13AN EGINGO DA.
ONDOREN, AURKEZLE IKASTAROA EMANGO DA.



ARRASATE





Arrasate Musikalen orkestrak 1983an Santiago de Compostelan eskainitako kontzertu batean, Juanito Arzamendik zuzendua.

Arrasate Musikalen zilarrezko ezteiak

“Union Cerrajerako Apendi-zen eskola izan zeneko ate handia zeharkatu eta lur zaharkituek ateratzen dituen hotsekin nahasten dira berehala musika doinuak”. Hone- la hasten da Itziar Trinkado Arrasate Musikali buruz idaz- ten ari den liburua.

Mende laurdena bete du Arrasate Musikalek. Garai batean Juventud Deportiva de Mondragon zenaren barruan zegoen. Baina Arrasate Musi- kalek bere kabuz lan egin nahi zuten eta azkenean, 1975ean, bere estatutuak onartu zituen eta jadanik 25 urte darama- tza musika doinu artean.

7 Oeko hamarkadan hasi ziren zenbait mondragoetar musi- ka eskola baten alde lanean. Lagun talde haren artean gehientsuenak Danok Abesbatza izan zene- ko kide ziren; beste batzuk, berriz, udal bandatik etorritakoak. Pare bat urtez eskola hura nola eratu asmatu ezin- da aritu ziren, baina azkene- an 1972ko irailaren 12an, lehe- nengo zuzendaritza izango zena eratu zuten. Garai har- tan Euskal Herrian elkarte bat eratzea ez zen lan erraza izat- en. Gobernu zibilaren baimen guztiak behar izaten ziren

legeztatutako elkarte bat iza- teko. Hori zela eta, Arrasate Musikal legez eratu arte bes- te bi urte pasatu behar izan ziren. Hala ere, ordurako bere zuzendaritza batzordearen osa- keta onartu zuen. 1972ko irai- laren 12an, lehenengo lehen- dakaria izendatu zuten Arra- sate Musikaleko kideek. Jose Maria Agirreurreta zen, Arra- sate Musikal izena asmatu zuen berbera. Orduko zuzen- daritza hartan zeuden Arrasa- te Musikaleko bigarren lehen- dakaria izen zen Juan Aran- buru eta Arrasate Musikalen sorreran erabakigarria izan zen Jose Luis Mendieta, bera

izan baitzen, Xabier Pagal- dairekin batera —hau ere zuzendaritzako kidea—, esko- laren instalazioen inguruan lan egiten aritu zenetako bat. Zuzendaritzako beste kideak Maite Lasa, Antxon Errasti, Antxon Alberdi, Luis Mari Maidagane, Karmelo Eriz eta Rafael Gartzia izan ziren.

LEKU BILA

Arrasate Musikalek 1972an Metalurgica Cerrajeraren lokalak lortu zituen. Martin Arregi Metalurgica Cerraje- rako kudeatzailea musikaza- lea zen eta egokia iruditu zitzaion lantegiaren zati bat

Arrasate Musikali eskaintzea. Hantxe hasi ziren eskolak ematen orain dela hogeita bost urte.

Baina ikasleek musika tresnak jotzen ikasi nahi zuten eta leku handiago baten bila, Union Cerrajeraren eskola lortu zuten.

Honela, 1974an Donostiako kontserbatorioko zenbait irakasle flauta, oboea, klarineta, biola, perkusioa, tronpa eta metala irakasten hasi ziren, hilean 6.500 pta.ren truke. Eurekin batera herrian musika irakasten zutenei ere Arrasate Musikalen sartzeko gonbita egin zitzaizen. Urte bat beranduago, 1975eko urtarilaren 13an, Arrasate Musikalen estatutuak onartu ziren.

LEHENENGO PAUSOAK

Arrasate Musikalen arazorik larriena finantziazioa zen. Arrasateko Udalera jo zuten, baina honek ez zuen udal eskola eratu nahi izan eta diru laguntzak eskaintzearen alde egin zuen apostu. Hau, ordea, ez zen nahikoa eta Arrasate Musikaleko kideek 500.000 pta.ko bi kreditu eskatu behar izan zituzten. Horrekin batera, bazkideak egin zituzten (600 bazkide lortu zituzten berehala) eta

XEHETASUNAK

- Ikasleak: 575
- Bazkideak: 800
- Irakasleak: 37
- Musika taldeak: perkusio taldea (5 lagun), tronboi taldea (5 lagun), banda txikia (25 lagun), orkestra txikia (40 lagun), akordeoi orkestra (20 lagun), banda handia (40 lagun), txistu taldea (4 lagun), ballet taldea (9 lagun), sokazko orkestra (15 lagun).
- Albina Madinabeitia musikaria Arrasate Musikaleko irakaslea izen zen, Espainiako Orkestra Nazionalan erretiratu eta gero.
- Arrasate Musikalek Nikanor Zabaleta arpa joleari lagundu zion, 1982ko emanaldi batean.

beranduago ikasleen gurasoak ere bazkide egitera derrigortu zituzten. Hala eta guztiz ere, herriko enpresei ere diru laguntzak eskatu behar izan zizkieten.

Eskolari dagokionez, Arrasate Musikalek Donostiako Udal Kontserbatoriaren adar antzekoa izatea lortu zuen. Juanito Arzamendi, Arrasate Musikaleko zuzendaria Francisco Escudero irakaslearen ezaguna zen eta haren bitartez lortu ziren irakasleak eta kontzertuak izatea. Bitxikeria bat: Francisco Escudero zuzentzen zuen Donostiako kontserbatorioren azken kontzertua Arrasaten izan zen, Gurea zinemaren.

MUSIKA EMANALDIK

Arrasate Musikalek estatuko lehen gazte orkestra eratu zuen 1975ean. Haren alde lan handia egin zuen Juanito Arzamendik, 20 urtez orkestrako zuzendari izan denak.

Egun banda baldin bada arrakasta handien duen musika taldea, garai batean orkestra zen Arrasate Musikalen bandera untzia. Bordelen, Munichen, Italian, Madrilen..., leku askotan izan zen orkestra 80ko hamarkadan. Luis Sagasta Arrasate Musikaleko hirugarren lehendakariak zerikusi handia izan zuen kanporatze harekin.

Arrasate Musikalek 1976ko ekainaren 22an eskaini zuen bere lehenengo ema-

naldi ofiziala, Gurea zinemaren. Eta Tarragonako Sanz-Konzert etxearekin elkarlanean, sekulako kontzertuak antolatzea lortu zuen Arrasaten bertan, Europako orkestrarik onenak ekarriz.

BALLET TALDEA

Arrasate Musikaleko ikasleen gurasoen eskaerari erantzunez, lehenengo taldeetariko bat izan zen ballet taldea Arrasate Musikalen. Gaur egun bederatzikoa baino ez ditu, baina garai batean sekulako arrakasta izan zuen eta Arrasate Musikalen emanaldi ia guztietan izaten zen ballet taldearen saioen bat. Honi esker ere herrian Europako ballet talde ospetsu askoren saioak eskaintzea lortu zuen.

EGUNGO NAHIK

Marta Eizagirre Arrasate Musikaleko egungo zuzendariak dioenez, Arrasate Musikalek duen arazorik handienak hezkuntza sistemaren egiturak eragintza dituzte. "LOGSErekin legea aldatu zen 1992an eta hezkuntza arautua edo ez arautua eskaintzea hautatu behar genuen. Azkenean ez arautua hautatu genuen. Egingo den musika mapan kontserbatorio arautu gutxi egongo dira; gehienak musika eskola ez arautuak izango gara eta musika kultura eskainiko dugu, musikarekiko zaletasuna zabaltzeko, hori baita gure helburua. Horrez gain, gaitasun handiko ikasleak kontserbatorioetara joatera animatuko ditugu, profesionalak egin daitezten, nahiz eta EAEn ez dagoen batxilergo artistikoa egiteko aukerarik".

Juan Aranburuk zioenez, "Arrasate Musikalek musika-erikiko zeuden kezka bideratzeko eskola eratu nahi izan zuen". Badirudi hori lortu egin dela, neurri batean behintzat. Beraz, Zorionak Arrasate Musikali eta bere kide guztiei!

Marijo Deogracias ■



Arrasate Musikalen bandak iazko San Joanetan Monterronen, Eduardo Arzamendik zuzendua.

*Euskal Herriko gimnasia
erritmikoan txapelduna*

MAITE ALBES

*“Jendeak uste du gimnasia
espagett bat egitea dela”*

— **Gustura zaude lortutakoarekin?**

— Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapeldun izatea, gustura egoteko modukoa da.

— **Espero zenuen emaitza hori lortzea?**

— Euskal Herriko txapeldun izatea ez. Gainera, aste-bete lehenago gripeak jota egon nintzen eta nahiko justu nenbilen. Bestalde, normalean puntuazioa beste kategoria bat sartzen denean ematen dute, baina egun hartan gu bakarrik geunden. Beraz, sekulako ezustea hartu nuen nure izena entzun nuenean.

— **Ahalegin handia eskatzen du gimnasia erritmikoak?**

— Gimnasia erritmikoak gorpuzkera ona eta teknika handia eskatzen du eta, noski, elastikotasuna. Jendeak uste du gimnasia espagett bat egitea dela bakarrik, baina espagett batekin ez zoaz inora.

— **Nolakoak dira entrenamenduak?**

— Federatuei egunero gutxienez hiru ordu eskatzen zaizkie. Ni ez nago federatua eta konpetizio garaian egunero bi ordu eta erdi entrenatzen dut.

— **Adin muga beste kirolean baino murriztagoa da gimnasia erritmikoan?**

— Nik datorren urtean ezingo dut jarraitu. Ez dago talderik hemezortzi urtetik gorakoz. Gainera, bizkarreko arazoekin nabil eta denboraldia hasiko dudan arren, minekin jarraitzen baldin badut, utzi egin beharko dut.



**ATLETISMOA
Unai Sarabia
bosgarren**



Huescan jokatutako Espainiako gazte mailako txapelketan, bosgarren tokian gelditu zen Unai Sarabia. Mondragoetarrak Espainiako txapelketarako sailkapena lortu zutenean bigarren tokia lortu zuen eta finalerdietan, berriz, hirugarren egin zuen, 22^o eta 79 ehunenekorekin. Igandean, bosgarren tokian gelditu zen arren, aurrekoetan baino lasterketa azkarragoa egin zuen. 22^o eta 5 ehuneneko behar izan zituen 200 metroak egiteko. Jonathan Perez ere Monzongo pistetan izan zen. Perezek pertika jauziko proba jokatutako behar zuen. Azkenean, ordea, gutxieneko 4 metroko jauzia zuen arren, ezin izan zuen parte hartu.

**TXIRRINDULARITZA
Alebinak eta
haurrak onenak**



Born Jay taldeko txirrindulariak Asteasun izan ziren igandean. Hantxe 23 urte azpikoen eta elite mailako San Petri saria jokatu zen. Samuel Sanchezek lortu zuen garaipena, sprintean. Born Jay taldekoak ere aurrealdean aritu ziren. Oskar Askasibar hamargarrena izan zen, denbora berarekin.

Alebin eta haur mailako Arrasate Kirolak taldeko txirrindulariek denboraldi hone-tako azken lasterketa izan zuten asteburuan. Jon Garate azkoitiarra atera zen garaile. Arrasate Kirolak taldeko Jon Rodrighez laugarren izan zen eta Jon Lete, berriz, seigarren tokian sartu zen. Haur mailan, Daniel Maestro oñatiarra izan

zen lehena. Markel Lasa Arrasate Kirolak taldekoa, hirugarren izan zen.

Aretxabaletako lasterketan bigarren mailako haurren kategorian, Aitor Elortzak saiatuenaren saria eskuratu zuen.

**FUTBOLA:
Aldaketak
Mondran**



Datorren urteko denboraldia-ri begira aldaketa ugari izango ditu preferente mailako Mondra taldeak. Jose Mari Barrutiabengoa ez da izango Mondrako entrenatzailea datorren denboraldian. Jose Mari Aloña Mendi taldeak fitxatu du. Mondra, ostera, Juan Ignazio Garairen zuzendaritzapean geldituko da. Garai, emakumeen taldeko entrenatzailea izan zen iaz. Garairekin hiru dira bailarako futbol taldeak entrenatuko dituzten mondragoetarrak. Barrutiabengoa Oñatiko taldea entrenatuko du; Aretxabaletako UDA taldea, berriz, Divino Zeziagok.

Taldeari dagokionez, fitxaje berriak izango ditu Mondrak. Zuluetak, Lopezek, Matalobosek eta Otxoak taldea utziko dute eta gazte mailako Silba (atezaina), Arkauz, Bereziartua, Berasaluze, Olazabalaga eta Ozaeta hasiko dira Mondrarekin entrenatzen.

Bestetik, David Espinosa, bigarren haur mailako jokalaria, Athletic taldeak fitxatu du. Datorren urtean Espinosa Bilboko taldearekin entrenatuko du.

Uztailaren 6an, batzar orokorra egingo dute Mondra taldekoek. Batzarra udaletxeko areto nagusian izango da, 19:00etatik aurrera. Aurreko denboraldiko balantzea eta hurrengorako aurrekontua izango dituzte ipide.

Auto eta motor txikiak Arrasaten

Arrasateko II. Kars Sari Nagusia eta Motor Txikien I. Sari Nagusia jokatu ziren asteburuan Mondragoeko kaleetan. Arrasateko Motorzale Elkar-teak antolatutako txapelketak Euskal Herriko txapelketarako balia garriak ziren.

Larunbatean kars txapelketa jokatu zen. Hiru mailatan jokatu zen lasterketa eta Ander Korkuera izan zen mondragoetar bakarra. Korkuera 100 zentimetro kubikoko mailan aritu zen eta bera izan zen nagusi. Atzetik Jose Manuel Otxoa eta Imanol Artola sartu ziren, besteak beste. Haurren kategorian, Iñaki Revilla izan zen garailea. Hirugarren mailan, mailarik nagusienean, Unai Castro izan zen lehena. 125-250 zilindradarekin aritu ziren gidaririk gehienak. Castroren atzetik, bigarren tokian, Jean Pierre Prigent frantziarra izan zen. Hirugarren tokian, berriz, Alberto Alonso gelditu zen.

Arrasateko Motorzale



Ibilgailu txikiak abiadura handia dutela erakutsi zuten kars eta motor txikien pilotuek.

Elkar-teak antolatutako II. sari honetan 25 auto txiki aritu ziren. Bigarren urtea izanik, pozik agertu ziren antolatzaileak, jendearen aldetik jasotako harreraz.

MOTOR TXIKIAK

Igandean, berriz, Motor Txikien I. Sari Nagusia jokatu zen.

Egun horretan Leonen beste lasterketa bat zegonez,

motorzale elkartekoez espero zutena baino parte hartzaile gutxiago aritu ziren Musakolako San Antolin auzoan: guztira 11 gidari.

Alebin, haur eta gazte mailako lasterketan, Juan Maria Olias Melero nafarra izan zen lehena. Bere atzetik gelditu ziren Efren Vazquez eta Iñaki Aznar bilbotarrak. Haur mailan, Ivan Korrotxano

donostiarra izan zen lehena. Bigarren tokian, Igor Hernandez gelditu zen eta Aitor Aznar hirugarren.

Hirugarren txanda 72 kilo baino gutxiagokoentzat izan zen. Maila honetan Jorge Gomez bizkaitarrak eskuratu zuen garaipena. Bigarren Daniel Hernandez izan zen eta hirugarren, berriz, Santiago Benedicto.

Squash Musakolan

Joan den asteburuan jokatu zen Euskal Herriko Squash Txapelketa Musakolako kiroldegian. 32 jokalaritari aritu ziren ostiralean eta larunbatean. Finalean Bilboko Alai taldeko Aitor Yanguasek 3 eta 1 irabazi zion Sestaoko Benedictina taldeko Iñaki Sierrari.

Kontsolazio saria Bruno Vega bilbotarrak eskuratu zuen. Mondragoetarrei dago kienez, Juan Antonio Varrillaren joko ona aipatu behar da, kontsolazio sariko final erdietara iritsi eta gero, 3 eta 2 galdu zuen eta.

Xake jokoan Eibar nagusi

Joan den larunbatean Match Scheveningen Xake Txapelketa jokatu zuten Arrasateko eta Eibarko xakezaleak, hiru ordu eta erdiz, herriko plazan. Eibartarrek eskuratu zuten San Joan saria, mondragoetarrek 54 puntu lortu zituzten bitartean, Eibarkoek, 74 eskuratu zituzten eta. Talde bakoitza zortzi jokalarik osatzen zuten eta guztira 128 partida jokatu zituzten. Jokalari onenaren saria Luis Enrike Esandi eibartarrak eraman zuen. Lor zitezkeen 16 puntuetatik 14 lortu zituen. Jesus Berezi-

barrek, berriz, Arrasateko jokalaririk onenaren saria eskuratu zuen.

Baina xake partida azkarrekin batera, Arrasateko eta Eibarko mutikoak xake taula erraldoi batean aritu ziren. Hemen ere etxekoek ez zuten garaipenik lortu eta Eibarrek irabazi zuen 2 eta 1.

Iazko txapelketan mondragoetarrek irabazi zuten lehena saria Bergarako jokalaririk aurka. Aurten aurkaria aldatu eta ez zaie hain ondo joan. Lau jokalariz osatutako talde batek, bestalde, Eibarko San Joanetako par-



Jesus Berezibar, xakelari onena.

tida azkarren txapelketa jokatu zuen eta 6. tokian gelditu zen. Guztira hamalau herri aritu ziren eta Errenteria izan zen garailea.

HARITZ AZKARRAGA (ZALDIBAR FUTBITOKO TXAPELKETAKO ANTOZAI)

“Zarautzko hondartzakoek bain j

Arrasatear dexentek jokatu dute Zaldibarren futbitora. Beteranoek gogoratuko duteenez, orain mende erdi edo ikus zitezkeen futbol partidak Zaldibarren. Kondairak dioenez, zuhaitz bat altxatzen zen kan txan. Bi talde aurkariekin jokatzeko zuen jokalaririk geldia eta ixila zen. Orduetik hona gauza asko aldatu dira, baina futbito zaletasunaren izpirituak Zaldibarreko paretan artean irautean du.

— Noiz gauzatu zen Zaldibarko txapelketa?

— Nik esango nuke orain hamabost bat urte. 84an geldiene bat egon zen, baina orain zortzi urte berriro berreskuratu eta indar handiarekin hasi zen txapelketa.

— Zergatik hasten da Maritxu Kajoiko bixamonean?

— Zergatik egiten du elurra neguan? Beti izan da horrela. Ohitura polita da. Batzuek

korbatekin, besteek zapatekin eta askok trajearekin jokatzeko dute. Gainera, orduko ikusleria urteko dotoreena izaten da.

— Aurtengo txapelketa-ri buruzko iritzia?

— Ni neuka-neka egin da bukatu dut. Alde batetik arazo handiegiak izan ditugu Orlando Piratasekin. Txapel-dunak ziren eta dagoeneko txapelketa hasieran elastikoa zela eta ez zela, iskanbila txiki bat izan genuen. Gero, ez ziren birritan partidak arbitratzera azaldu, eta araudiari jarraituz, kaleratu behar izan genituen. Hortik aurrera, gauzak behar baino gehiago nahastu ziren. Bestalde, EPH taldeko batek antolatzaile bat mehatxatu zuen eta talde antolatzaile bera segitu bitartean, txapelketa kanporatzea

erabaki genuen.

— Partaidetzari dagokionez, txapelketa onena da Zaldibar?

— Euskadin, eta akaso estatuan ere, dagoen era horretako txapelketa handiena

da Zaldibarkoa. Zarautzko plateroek baino jende gehiago mugitzen dugu. Orain hiru urte goia jo genuen 80 talderekin. Aurten 50 ingurura jaitsi da, baina jokalaririk kopuruari eutsi egon diogu. Batez beste, 1.000 lagun baino gehiago elkartzen da urtero txapelketan.

— Noizko herri arteko txapelketa?

— Hori da nire ametsik handiena. Gipuzkoako Federazioarekin egon ginen orain bi urte eta txapelketa desberdinetako txapelketarekin *Champion's League* antzeko bat egiteko ideia sortu zen. Federazioak hartu zuen ardura, baina oraindik ez dugu izan berririk.



Aurten beste urte batzuetan baino arazo gehiago izan dugu, nahiko sonatuak gainera. Bata Orlando Piratasekin eta bestea EPH taldeko jokalaririk batekin.

ANTOZAILEA)

„ain jende gehiago mugitzen dugu”

— **Noiz arte onartuko dira jokalaria profesionalak txapelketan?**

— Federatuek zein beste herrietako taldeek nahiz neskek aukera dute parte hartzeko. Zaldibar herri txapelketa da eta ezin da mugarik jarri. Dena den, alde ona ere badu: ez da eta berdin Ganbelasi irabaztea edo Aldibi edo Argi Ibiliri irabaztea. Horrek emozioa eta ospea ematen du.

— **Noiz irabaziko du txapelketa gazte talde batek?**

— Noiz irabaziko duten? Bada, gazte taldeak beterano direnean.

— **Herri txapelketa izateko, ez da serioegia Zaldibar?**

— Errespetu guztiarekin, Zaldibar Zaldibar da eta beste edozein txapelketak baino ospe handiagoa du. Beste leku batzuetan sari handiagoak daude, baina ez da berdina Eskoriatzako txapelketa irabaztea edo Zaldibarkoa irabaztea.

— **Iruzurrik egiten da partidetan?**

— Batzuetan bai. Aurten Cerveceria Leniz eta Aldibik iruzur egin dutela esango nuke. Aldibi hurrengo faserako sailkatuta zegoen eta Cerveceriak

garaipena behar zuen: 2 eta 1 bukatu zen, Cerveceria alde. Ezin dut frogatu, baina igarri egiten da.

— **Arrasateko enpresarioak haserre daude Zaldibarren sortzen diren lesioekin?**

— Entzun izan da zerbait. Dena den, mila laguneko talde batean hamar batek min hartzea normala da. Gainera, zauri larrienak ez dira sarrera gogorrek eraginda. Halabeharraz izaten dira.

— **Eta ikusleak?**

— Hiru zutabe ditu txapelketak: jokalaria, erakun-

de laguntzaileak eta ikusleak. Ikusleria leiala dugu. Emaizak jarraitzen dituen eta euria edo eguzkia gorabehera, beti bere lekuan dagoena. Oso garrantzitsua da txapelketa-erantzat.

— **Momenturik goxoenak?**

— Hirugarren fasetik aurrera. Txapelketa bero-berodago, partida bakarrek kanporaketak dira, Zaldibar jendez gainezka egoten da... Momentu gorena finala da.

— **Datorren urtean zer?**

— Ni akaso ez naiz egongo, baina Zaldibar bai. Beti.

Libidazioa

Sekulako beherapenak

%20

%30

%50

Elisabeth

Mayoral

Araba Etorbidea, 18 • ARRASATE • Tel.: 943 77 14 86

Uztailean zinea ilargipean

Udako gau epeletan, ilargipean, beste batzuek kontatutako istorioekin amets egin. Horixe da, Monterron Parkean uztaila iristean egiten dena. Zineaz gozatzeko aukera izaten dugu hilabete horretan Monterronen.

Aurtengoan lau film ikusiko dira. Iaz izugarritzko arrakasta izan zuten filmak dira: *Airbag*, *Bernie*, *Trainspotting* eta *Perdita Durango*. Arrakastaz gain, guztiak dute zerbait gehiago komunean: jende gaztearen inguruko istorioak kontatzen dituzte, ikuspuntu ezberdinetatik.

Atzo, osteguna, lehenengo ikusi zen. 1997. urtean ikusle gehien izan zituen film espainiarra. Karra Elejalde eta Fernando Guillén Cuervoren irudipen zorotik jaiotako filma eta Juanma Bajo Ulloak zuzendutakoa. Jakina! *Airbag*.

Datorren ostegunean *Bernie* film frantsesa ikusiko da. Albert Dupontelek zuzendutako istorio honek arrakasta handia izan zuen bere lurraldean. Albert Dupontel Frantziako Santiago Segura da. Honek bezala, Dupontelek ere umore beltz gogorra maitatu du. Euren filmek antzekotasun dexente dituzte. Hau egiaztatzeko aukera hilaren 9an izango dugu, *Bernie* filmarekin.

Uztailaren 16an Britania



Zinea ostegunero izango da gaueko 22:30etan, Monterronen.

Handiko zinea berpiztu zuen filma izango da: *Trainspotting*. Drogak film ugaritan jorratu izan dira, baina *Trainspotting* azaldu arte ez zuten inoiz horrelako eztabaida piztu. Batzuek diote *Trainspotting* drogaren apologia dela. Besteek, aldiz, gizarteko errealtatearen ispilua besterik ez dela. Kontua da, *Trainspotting* filmak ikaragarritzko arrakasta izan duela, eta batzuek fenomeno sozial moduan azaldu dutela.

Azken filma euskal zinegile baten abentura amerikarra da. Alegia Alex de La Igle-siak zuzendutako *Perdita*

Durango. Romeo Dolorosa hiltzaile bat da, eta *Perdita Durango*. inongo eskrupulurik ez duen emakumea. Elkarrekin bi gazte bahituko dituzte, eta hor hasten dira hauen joan-etorri ero eta bortitzak.

Beraz, hilabete honetako ostegunetan badugu zer egin Arrasaten. Aspaldiko ohituraren moduan, uda partean gaueko freskuran zinea ikusteko elkartuko gara Monterronen.

Zinea Monterronen

Noiz	Filma	Zuzendaria
Uztailak 2	<i>Airbag</i>	Juanma Bajo Ulloa
Uztailak 9	<i>Bernie</i>	Albert Dupontel
Uztailak 16	<i>Trainspotting</i>	Danny Boyle
Uztailak 23	<i>Perdita Durango</i>	Alex de La Iglesia

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 943 76 59 39 / 943 76 59 72 • Fax: 943 76 25 72



Pavimentos AGR

AROSZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

ISABEL GALLASTEGI, GOIKOBALUKO KIDEA

“Argentinara kantatzera joateak esan nahi du Goikobalu bizirik dagoela”

Arrasateko ahots berezientek Atlantiko Itsasoaren beste aldera egingo dute jauzi uda honetan. Goikobalu abesbatzaz ari gara hitz egiten, jakina! Izan ere, datorren abuztuan Argentinara joango dira, han makina bat kontzertu eskaintzera. Ez da bide erraza izan amets hau gauzatzea, baina azkenean, abuztuaren 4an berrogeita hamar inguru mondragoetarrek Argentinarako hegazkina hartuko dute.

— Nola sortu zen Argentinara joateko ideia?

— Urtarril aldera Argentinako euskal etxeek han kantatzeko gonbita egin ziguten. Asmoa zen abuztuan Argentinan egiten den neguko kontzertuen zikloan eta euskal etxeetan kantatzea. Zoragarria iruditu zitzaigun, baina aldi berean zaila.

— Zergatik zaila?

— Goikobalu abesbatza amateurra da, beraz, oso diru gutxi dauka. Argentinara joateak diru dexente eskatzen zuen, eta guk ez geneukan horri aurre egiteko beste diru. Oso urruti ikusten genuen Argentina, bai geografikoki, baina batez ere, diruaren eragozpenagatik.

— Baina animatu egin zineten.

— Bai. Ideia zoragarria iruditzen zitzaigun. Alde batetik euskal kantuak munduan zehar zabaltzeko, eta bestetik munduaren beste aldean dauden euskaldunekin elkartzeko aukera ematen zigulako. Ideia buruan geneukan, eta azkenean dirua nondik lortu pentsatzen hasi ginen. Aurrera atera beharreko gauza zen.

— Nondik lortu duzue dirua?

— Guk argi geneukan dirua guk hobekien egiten dakiguna eginez lortu behar genuela. Kantatuz. Baina horretaz



gain, beste ekintza batzuk ere egin ditugu. Erakundeetara jo genuen laguntza bila. Eusko Jaurlaritzak, diputazioak eta Arrasateko Udalak oso erantzun ona eman digute. Inguruko zenbait enpresa eta bankutara ere jo dugu laguntza bila. Horretaz gain, beste ekintza batzuk ere egin ditugu. Besteak beste: Santamasetan txosna jarri genuen, eta elastikoak eta zainzuriak saldu ditugu. Baina koralista bakoitzak bidaiaren erdia bere poltsikotik ordainduko du.

— Zer esan nahi du Argentinara joateak?

— Guretzat erronka handia da. Goikobalu bizirik dagoela esan nahi du, eta urtean zehar egindako lan eta entseu guztiengatik jasotzen dugun nolabaiteko oparia. Urte dextetean egindako lanaren ordaina.

— Opor bereziak, beraz, aurtengoan Goikobalukoentzat.

— Bai, baina ez da oporraldi soila. Zerbait gehiago da. Gure kultura beste herri batzuetara zabaltzea da. Guk ez dugu oporraldi moduan ezartzen.

aste gazte

■ BEKAK

• “Turismo en España 98” beka indarrean dira; estatuan edo atzerrian graduatuondoko ikasketak edo lan praktikak egiteko aukera. Epea: uztailak 11.

• Leonardo programak, atzerriko enpresetan lan praktikak egiteko aukera, ikasketen azken urtea edo ikasketak bukatu berriak dituzten pertsonentzat, beti ere lan esperientziarik gabekoak. Izen emateko epea: uztailak 30.

• Artisautza lanak bultzatzeko diru laguntzak, arlo honetan ekintzak antolatzen dituztenei zuzenduak. Epea: irailak 15.

• Bergarako Udalak “Justo Garate Arriola” ikerketa beka, soziologiaren arloan ikerketa lanak burutzeko deialdia egin du. Epea: irailak 30.

■ LANA

• Etxarri Aranazko Udalera, kultura koordinatzaile bat behar dute. Epea: uztailak 17.

• Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, perkusio, biolin, biola eta biolontxeloko musikariak behar ditu. Epea: irailak 25.

• Orioko Udalak kultura eta gazteria teknikari bat behar du. Epea: BOEn argitaratu zain.

■ UDA

• Udako oporrak antolatuz guran baldin bazabiltza, Gazte Bulegoan dugu leku ezberdinei buzzuko informazio turistikoa. Etorri eta galdetu.

“Euskal kantuak munduaren beste aldera eramango ditugu uda honetan”

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

ETXEBIZITZAK

3. Errentan emateko

• Zarautzen etxebizitza alokagai. SanJoanetarako edo uztailetarako. Tel.: 943 83 12 53.

• Etxe bat alokagai Donostian, uda parterako. Tel.: 943 79 14 99 edo 943 21 53 98.

• Torrebiejan apartamentua alokagai. Hondartzatik 100 m.ra dago. Egon-gelajangela eta bi logela. Tel.: 943 77 03 85.

• Bungalow bat alokagai Peñiskolan, uztailearen bigarren hamabostaldian edo irailean. Tel.: 943 77 05 88.

• Aramaioko erdigunean etxebizitza alokatzen da. Jantzia dago eta berogailua dauka. Tel.: 943 79 60 88.

• Laredon hondartza ertzean dagoen apartamentua alokatzen dut. Tel.: 943 79 52 80.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Tel.: 943 77 13 20. Ainhoa.

• Etxebizitza merkea, erosi edo alkatuko nuke. Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 79 28 30.

• Erretiratu bikote batek etxebizitza hartuko genuke alokairuan. Tel.: 943 79 36 81. Deitu 15:00etatik 17:00etara edo 20:00etatik aurrera.

• Ikasle batzuek etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Eskertuko genuke telefono honetara deitzea: 943 88 33 98. Jonez galdetu.

• Senar-emazteek etxebizitza alokatu nahi dute Arrasaten. Tel.: 943 79 75 34.

• Etxebizitza hartuko genuke alokairuan Arrasaten. Tel.: 945 45 01 80. Urtzi. Deitu asteburuetan.

• Ikasle batzuek lau logelatako etxebizitza hartuko genuke alokairuan. Tel.: 943 55 44 65.

5. Etxe konpartituak

• Gela bat alokatzen da San Andresko etxebizitza batean. Uztailearen erdialdera arte. Tel.: 943 79 98 70. Txema.

• Arrasateko alde zaharrean gela bat dugu alokatzeko. Berri gehiagorako, deitu gaez 943 79 96 79 telefonora. Jose Luis.

• Lagun bat behar da etxebizitza osa-

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

tzeko Aramaion. Tel.: 943 77 04 98. Eguerdietan.

• Gela baten bila nabil etxe konpartitu batean, Arrasaten. Tel.: 929 96 85 87. Juanjo.

• Gela bat alokatzen da, alde zaharrean. Tel.: 943 79 87 59.

• Donostian etxea osatzeko bi neska behar dira. Tel.: 943 79 74 03.

• Irailetik aurrera gela bat behar dut Arrasateko etxe batean. Dei egin 943 71 24 00 (221 luzapena, David) bulego orduetan.

• Etxebizitza osatzeko bi lagun behar dira Amaran, Donostian. Egoera onean dago. Tel.: 943 79 53 58 / 943 79 27 42.

LANA

17. Eskaintzak

• Andra euskaldunak etxeko lanak egin eta umeak eta pertsona nagusiak zainduko litzuzke. Arratsaldean lan egingo luke. Tel.: 943 79 07 73.

• Esperientziadun klinika laguntzai-

leak pertsona helduak zainduko litzuzke, etxeetan edo ospitalean. Gaez ere bai. Tel.: 943 79 34 09.

• Neska prest ile apaindegian lan egiteko. Tel.: 943 79 53 57. Goizez edo gaez.

• Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko neska prest. Tel.: 943 79 68 77. Vanessa.

• Neska arduratsua prest umeak zainitzeko. Tel.: 943 71 53 74. Goizetan edo 20:00etatik aurrera.

• Emakume esperientziaduna prest etxeko lanak egiteko eta pertsona gaixoak edo umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 11 46.

• Esperientziadun neska prest orduka garbiketarako egiteko (atariak, etxeak, dendak, e.a...). Tel.: 943 79 60 03. Deitu 21:00etatik aurrera).

18. Eskaerak

• Jangelan lan egiteko zerbitzaria behar da. Kontratu egingo da. Tel.: 945 44 50 95.

• Uztaile eta abuzturako emakume edo neska autodunak behar dira Aramaion pertsona helduak zaintzeko. Tel.: 945 23 34 12.

• Zerbitzu arloan lan egiteko merkataria behar da. Tel.: 943 77 17 68.

• Emakume bat behar dut taberna garbitzeko. Tel.: 943 44 50 95.

• Publizitate saltzailea behar da Jardun elkartearen proiektu berezian bul-tzatzeko. Bidali curriculumak ekainaren 22a baino lehen, helbide honetara: Jardun elkarte. Kartzela zaharra, Juan Irazabal kalea z/g. 20570 Bergara.

• Ile apaintzailea behar dugu asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eskatzen da. Tel.: 943 77 09 44.

• Pizzeria batek sukaldari laguntzaila behar du asteburuetarako. Tel.: 943 79 11 25.

• Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.

• Sukaldari laguntzaila behar da jatetxerako. Tel.: 943 78 35 26.

• Emakumea behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 10 62.

• Ume bat zaindu eta etxeko lanak egingo litzuzkeen emakumea behar da Aramaioko baserri batean. Tel.: 929 422 314. Deitu 21:30etatik aurrera.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Euskal filologiako ikasleak, udaran eskola partikularrak emango litzuzke. Euskara, gaztelania... Tel.: 943 79 29 20.

• Ingeleseko eskolak emango nituzke uztailean. Tel.: 943 79 18 70.

• Neska prest uda partean eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 81 67.

• Uztailean eskola trinkoak emango nituzke. Ingeles, ESO eta LOGSEN. Talde txikiak. Ingeleseko titulu ofiziala eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 56 78.

• Irakasle ikasketetan diplomadunak eskola partikularrak emango litzuzke udan. Tel.: 943 79 35 24.

• Udan eskola partikularrak emango nituzke Aretxabaletan. Matematika, fisika eta kimika. Tel.: 943 79 51 19. Ane.

• LH, DBH. Latin eta ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 943 79 47 35.

• 14 urte arteko gazteei matematika eta fisikako eskola partikularrak

emateko prest. Tel.: 943 79 81 70.

21. Eskaerak

- Ingeleseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 99 41. Beatriz.
- Ekonomiako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 77 05 25.
- Frantseseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 63. Deitu arratsalde. Igor.
- Etxean eskola partikularrak hartuko nituzke, BTT 2. mailako elektroteknia, matematikak, ingelesa eta gaztelania. Tel.: 943 79 34 53
- Kontabilitateko eskola partikularrak jasoko nituzke. Deitu gaueko 21:30etatik aurrera 943 79 36 83 telefonora. Idoia.
- Txinera ikastea gustatuko litzaidake norbait eskola partikularrak emateko prest balego. Deitu 943 71 50 72 telefonora.
- Euskaraz dakien irakaslea behar nuke irailaren 1etik aurrera, ESOko 1. mailan hasiko den gazte bati eskolak emateko. Tel.: 943 79 06 24 / 943 79 94 52.

MOTORRA

23. Saldu

- Peugeot 205 gorria salgai. Eguzki sapaia dauka. Tel.: 943 76 21 70 / 943 77 12 04. Deitu gaueko 20:00etatik aurrera.
- Ford XR-2 salgai. Berri-berria. 250.000 pta. Tel.: 943 79 80 44 Lutxi.
- Karabana tolesgarria salgai. Tel.: 943 79 52 41.
- Kawasaki Vulkan 800, 93. urtekoa eta gehitutako zerbitzuekin salgai, 600.000 pta.tan (negoziagarriak). Tel.: 943 77 10 30.
- Motorra Yamaha TZR-80 salgai. SS-V. Tel.: 943 79 73 54.

DENETARIK

26. Saldu

- Correoseko lehiaketetarako gai zerrenda salgai. MAD akademiakoa. Tel.: 943 79 60 81.
- Lau lagunentzako lekua duen denda erremolkea salgai. Oso egoera one-

an eta prezio interesgarrian. Tel.: 943 71 52 24. 20:00etatik aurrera.

• Errepideko bizikleta saldu nahi dut. Tel.: 943 79 31 40.

• Maxi-cosia salgai 17.000 pta.tan (hamaka + txasixa = paseorako haur kotxea, aterkia daukan aulkia). Tel.: 943 79 41 31.

• Jamsterra salgai, 200 pta.tan. Tel.: 943 77 17 82.

• Urte bat baino ez duen errepideko bizikleta baten koadroa salgai. Ezauzgarriak: Tuberia Columbus SLX Pinarrello JJC; urkila zuzena, kolore horia eta 60ko neurrikoa dena. Oso merkea. Tel.: 943 71 42 32. Iñigo.

• Trialeko bizikleta salgai. Bikotrial X. clas 219. Tel.: 943 79 93 03.

• Mendiko bizikleta salgai. Zazpi urtera artekoentzat. Merke. Tel.: 943 79 79 53.

• Umeak autoan eramateko aulkia salgai. Tel.: 943 79 79 53.

27. Erosi

• Ehiza txakurrak eramateko bigarren eskuko eskorga merkea erosi nuke. Tel.: 943 78 34 64. Migel Angel.

• Disko txikiak eta handiak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

• 2m.ko kaja duen erremolkea erosi nuke. Tel.: 943 73 19 60. Joseba. 21:00etatik 22:00etara.

• Disko singleak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

31. Galdu

• Ekainaren 17an Zerrajeratik Iturriotz kalerainoko bidean kamisola marroia galdu nuen. Aurkitu baduzu, deitu 943 79 26 21 telefonora.

• Arrosa koloreko jaka galdu dut Zaldirabarretik S. F. Xabier ikastolarainoko bidean. Topatu baduzu, deitu mesedez, 943 79 38 52 telefonora.

• San Joanetan urrezko eta landutako perladun belarritakoa galdu zitzaidan. Aurkitu baduzu, deitu mesedez, 943 79 89 48 telefonora. Sari-tuko da.

32. Aurkitu

• Perikito berde-horia aurkitu nuen San Andresen. Tel.: 943 71 46 50.

• Etxeko katu bat aurkitu dugu. Bel-tza da eta lepokoa ere badauka. Tel.: 943 79 25 07.



Zatoz eta
ezagutu
gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Auto Suecia



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



MITSUBISHI
MOTORS

Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxa: 943 79 65 65



La Merced eskolan ibilitako ikasleak dituzue argazkikoak. Lourdeseko Amabirjina agertu zeneko mendeurrenean ibilaldia egin zuten leku sakratura. Bidean Miarritzen geratu, eta hantxe atera zuten taldeko argazkia.

Ezkerretik hasita eta goi-

kerroan: Izaskun Markaide, Juanita Zabala, Angelita Uribetxebarria, Milagros Elorza, Blankita Landa, Mari Tere Uribetxebarria, Mari Tere Gomez, Mari Karmen Otadui, Lurdes Mayor, Elena Galdos, Mari Asun Elgoibar, Begoña Pagaldai, Maribel Otxandiano, Nati Altube, Pilar Zubillaga, Esther de Valle, Ana Mari

Solaegi, Pilar Leibar eta Mertzxe Juldain.

Bigarren lerroan: Ines Elkorobarrutia, Maritxu Muñoa, Clara Elkorobarrutia, Mari Karmen Zubillaga, Petra Mari Inda, Tere Oianguren, Marilu Etxabe, Gali Telleria, Maria Angeles Zubiaga eta Pilar Uribetxebarria.

Eserita: Rosario Uribe-

campos, Sagrario Lopez, Anparo Lopez, Maria Tina, Mari Nati Arzamendi, Mari Flor, Arantxa Laso, Lurdes Azkarate, Esther Azkarate, Juldain.


*Berriak eta argazkia:
Juanita Arana.*



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea 1-0-4
Hnoa: 791844
Faxa: 792941

AB Asesores-ek zuretzat aukeratu ditu...

munduko inbertsio fondorik onenak... fondo bakar batean

AB Fondos RV FIM

Dei iezaguzu 943 76 54 35 telefonora eta jakinaraziko dizugu.

Gutxieneko inbertsioa: 100.000 pta.

AB ASESORES

Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz, 6

S. Lorenzo Industrialdea

Tel: 943 76 54 35

2570 BERGARA

<http://www.abasesores.es>

betaurrekoak



INSTITUTO
OPTICO

guzti  n
gustukoak



Eros itzazu zure eguzkirako betaurrekoak.
3.000,-pta.tan graduatuko dizkizugu.

Kalitatea
Saltzen dugu



Kalitatea
saltzen dugu.

INSTITUTO OPTICO
Erdiko kale, 22
20500 ARRASATE
943 79 71 68

INSTITUTO OPTICO
Andra Mari, 8
48200 DURANGO
94 6202986

INSTITUTO OPTICO
Hiper Eroski
20500 ARRASATE
943 79 78 26

INSTITUTO OPTICO
Grupo San Ignacio, 3
48200 DURANGO
94 6818492

OPTICA GARAGORRI
Iturriotz, 29
20500 ARRASATE
943 79 16 98

INSTITUTO OPTICO
Erdiko kale, 21
20830 MUTRIKU
943 60 31 54

IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO IKASTAROAK



UDA HONETARAKO

Aprobetxa ezazu ondo aurtengo uda, zeure aisialdiaren tarte bat hizkuntza bat ikasteari eskainiz; konturatu gabe ingelesa, frantsesa edo alemanera hitz egiteko gai izango zara.

Uztaila
egunean 2 ordu

Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago

HAUR ETA GAZTEAK
goizetan, 11etatik 1era

HELDUAK
arratsaldeetan, 4etatik betara

ALEMANERA
FRANTSESA
INGELES

 **CIM**
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Olakua, 14
Te. 943 71 60 00
OÑATI

Araba Etorbidea, 4
Tel. 943 71 20 55
ARRASATE

Ikasleek multimedia baliabideak eta mediaketa "dohainik" erabiltzeko aukera dute.

foto zaharra
sofa leku

a. eme... interiores



centro hogar muebles



grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92